

ZALDIBIAKO XXVIII MONDEJU LEHIAKETA

1. PARTE-HARTZAILEAK:

Parte-hartzea irekia izango da. Mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte.

2. IZENA EMATEA:

Izena urriaren 28a baino lehen eman behar da **649316534 telefonora deituz**.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 18:30era.

3. AURKEZPENA

- 5 kana ekarri behar dira
- Bertako produktuekin eginak.
- Mondejuak, beren salda eta guzti, Zaldibiako plazara eraman behar dira urriaren 29an goizeko 10:00ak baino lehen.

Oharra: Antolatzaileek lehiaketako parte-hartzaileek ekartzan dituzten ontziei, zenbaki bana emango diete, epaimahaikideek mondejugileen izena jakin ez dezaten.

4 PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK:

Lehiaketan aurkezten diren mondejuen puntuaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-tamaina.

5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA:

Epaimahaia jatetxeetako sukaldari ezagunek eta gai honetan aditu diren herritarrek osatuko dute.



6. SARIAK:

- 1.- 300 euro eta txapela.
- 2.- 200 euro
- 3.- 100 euro

7. PARTE-HARTZAILE

GUZTIEK 25na euro jasoko dituzte.

2023ko ARDIKI EGUNA Urriak 29



MONDEJUA
Latxa ardi-hesbetea



Zaldibia

Egitaraua

10:30etan. **Diana.** Herriko Txistulari Taldea eta Garixe, Arbeo, Maltzeta eta Txino trikitilariak alaituta.

Artisautza erakusketa. Ardi gazta eta Mondeju egiten, telarra lanean, zesto edo aulkiak egiten...

Artisau produktuen azoka.
Ganadu erakusketa.

Latxa arrazako ardi eta ahari, pottokak, Ahuntz azpi gorriak.

11:00etan. **Zaldibiako XXVIII. Mondeju eta XXV. Aralarko Gaztaren Lehiaketak.**

Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso bertso kantari direla, Zaldibiko mondejuak dastatu ahal izango dira herriko plazan, Antzokiko bazkarirako txartelak sagai izango dira 25eurotan.

13:15etan. **Sari banaketa.**

14:30etan. **Bazkaria.** Herriko antzokian, mondejua, ardikia gisatuta, ardikia erreta piparrakin eta aralarko gazta, kafea eta patarra.

19:30etan. Lagunarteko kalejira.

2023ko Ardiki Egunari amaiera emateko.

